

DIRULAGUNTZA-DEIALDIAREN LABURPENA

Zarauzko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2025ko martxoaren 24ko Ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, ZARAUZKO UDALERRIKO IRABAZI-ASMORIK GABEKO KULTURA- EDO GIZARTE-ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKA ARAUBIDEZ EMATEKO 2025. URTEKO DEIALDIA egin zen.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://xxxxxxx>).

Onuradunak: beren jarduera nagusiki Zarauzko udalerrian garatzen duten irabazi-asmorik gabeko pertsonak eta entitateak.

Helburua: Zarauzko Udaleko Kultura Departamentuaren programen helburuekin bat egiten duten kultur jarduerak, programak, eta sormen-proiektuak egiteko 2025. urtean norgehiagoka araubidez emango zaizkien dirulaguntzak arautzea.

Oinarri arautzaileak: Kultura Departamentuko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak (2024ko apirilaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 66. Zk.).

Zenbatekoa: 12.185,00 €

Eskabideak aurkezteko epea: Eskakerak hogeita hamar egun naturaleko epean egingo dira, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

(Itxiera)